

**San Sebastián Turismo/Donostia Turismoa, SAK eta tiketak erosten dituzten
bezeroen arteko harremanetarako
BALDINTZA OROKORRAK**

- San Sebastián Turismo/Donostia Turismoa, SAK bere webguneko (<http://www.sansebastianturismo.com>) “Eskaintzak” atalean iragarritako jardueren tiketak aldeztatik erosteko zerbitzua jarri du bezeroen esku. Hala, bezeroek tiketak errazago eskura ditzakete, sustatzaileak berak bere izenean eta bere kabuz kudeatzen baitu bere jardueraren tiketetan banaketa (hau da, sustatzaileak berak bere zerbitzuak merkaturatzen ditu).
- San Sebastián Turismo/Donostia Turismoa, SAK jardueren sustatzaileen eta bezeroen esku tiketak salerosteko bide bat jartzea du helburu. Halere, San Sebastián Turismo/Donostia Turismoa, SA ez da erakunde sustatzailea edo antolatzailea eta ez ditu jarduerak burutuko ez eta horien antolaketan parte hartuko.
- Beraz, jardueraren antolaketaren inguruko edozein erreklamazio egiteko, bezeroak/tiketaren erosleak jardueraren sustatzailearengana jo behar du. San Sebastián Turismo/Donostia Turismoa, SA jarduerarekin zerikusia duen erantzukizun orotik salbuetsita geratzen da.
- Bezeroak adierazten du jarduteko eta jarraian aipatutako baldintzen arabera kontratatzeko lege-gaitasuna duela. Halaber, baldintza horiek ulertzen eta onartzen dituela adierazten du.
- Tiketa erosi ondoren, ezingo da aldatu ez eta ordaindutako zenbatekoa itzuli ere, indarrean diren legeetan aurreikusitako kausengatik ez bada.
- Tiketak berotik urrun dagoen leku lehor batean gorde behar dira, eta ez dute plastikorik edo eremu magnetikorik izan behar inguruan.
- Tiketa saldu ondoren zerbitzuan izandako aldaketak (jardueraren eguna aldatzea, bertan behera geratzea, etab.) zerbitzuaren sustatzailearen erantzukizuna dira, ez beste inorena.
- Tiketa galduz edo lapurtuz gero, San Sebastián Turismo/Donostia Turismoa, SAK ez du horren erantzukizunik hartuko.
- Itzulketa-politika eta atzera egiteko eskubidea:
 - Tiketen zenbatekoen itzulketak ez dira egiaztatuko. Jarduerara ezin bertaratzeak ez du dirua itzultzeko eskubiderik emango.

- Bezeroak ezin du atzera egiteko edo kontratua suntsiarazteko eskubidea gauzatu, kontsumoari eta txikizkako merkataritza antolatzeari buruzko indarrean dauden legeen arabera.
- San Sebastián Turismo/Donostia Turismoa, SA banatzaileak tiketak ezerezta ditzake eta horien zenbatekoa itzul dezake soil-soilik jardueraren sustatzaileak berriaz aginduz gero, jarduera bertan behera geratu delako, eguna aldatu delako, etab.
- Tiketak itzultzeko, bezeroek horiek erositako saltokira jo beharko dute halaberrez.